



## Marka berria ezarri du Fernando Etxegaraik Ernioko mendi lasterketan

**TOLOSA** ▶ 1:24:44 izan zen beratarren denbora, aurrekoan baino 2 minutu eta 8 segundo gutxiago

**EMAKUMEZKOAK** ▶ Nerea Amilibia izan zen lehena, 1:48:09rekin aurreko marka hobetuz ▶ 7



Triangulo plazan egin zuten sari-banaketa. Irudian, lehenengo bost emakumezkoak eta gizonezkoak. n. g.



## Jende ugari erakarri du Elikagaien Azoka Bereziak

**VILLABONA** ▶ Bertako produktu ugari erosteko aukera izan zen; XIII. Isats Gisatu Lehiaketa Irrintzi elkarteak irabazi zuen ▶ 6

**TOLOSA** ▶


Jesus Elosegiren irudiak liburuan

Atzo egin zuten aurkezpen ekitaldia ▶ 7

## Pasus Enea

### JATETXEA

Tel.: 943 249 775  
Ernio-bea, 7 • 20150 Zizurkil  
[pasus@pasusrestaurante.com](mailto:pasus@pasusrestaurante.com)  
[www.pasusrestaurante.com](http://www.pasusrestaurante.com)



**NEREA**

1962-2007  
Lentzeria

Gizonezko eta emakumezkoentzat

**LIKIDAZIOA**

Azken errematea  
%40 %50 eta %70eko  
beherapenak!

Pijamak • Kamisoiak • Kamisetak  
Batoiak • Pikardiak • Tangak • Bodiak

Errementari Kalea, z/g • TOLOSA • Tel.: 943 67 16 30

## UZTURRETIK ▶ FELIX IRAZUSTABARRENA

## Berriro



Itzultzea tokatu zaigu, lanera bueltatzea alegia, ez egoera iraultzea. Eta atzera etxera etortzeak sindromea sortzen duen honetan, berri ekonomikoek ireki didate atea.

Ez naiz ekonomia albisteak irakurri zalea, ez dut ulertzen norentzat ematen den egunero egunkarietan eta telebistetan burtsaren informazio luze eta ze-

hatza, baina azken egunetako titularrek atentzioa deitzeko eta itzulera gogorra egiteko modukoak dira.

Esnea, ogia eta arrautzak urte bukararako %20a garestituko direnarekin batera denek Euriborra aipatu dute. Atletismoko mundialetan baino errazago, etengabe errekorrak gainditzen ari omen da zehazki inork ez dakigun, bana gehienok nozitzen dugun portzentaia hori.

Gehienok nabarrituko dugu, eta hipoteka mailegua dugunok ondo antzeman ere. Nola kalkulatzeko den eta zergatik igotzen den enteratzeko astirik gabe,

gehiago ordaindu behar dela badakigu. Batez beste hileroko 100 euro gehiagoko kalkuluak egin omen dituzte. Eta, batez beste hau ere, gure soldataren %40a erabiltzen badugu hipoteka ordaintzeko, nozitu dugun notizia izango da.

Nozitu ez ziur aski, baina banketxeek ere nabarrituko dute, Espainiakoei 9.800 milioi euro irabaziak zituzten ekaina bitartean. Britaina Handiko bost bankuen artean 22.600 milioi denbora berean. Eta zenbaitek bizi osoa beharko badu mailegua ordaintzeko, BBVAko presidentek urtean irabazten dituen 20 milioiak irabazteko katuaren zazpiak

motz geratuko zaizkio. Irakurri berriro bai, urtean 20 milioi euro (ia 10 soldata eta beste 10 pentsio fondora) Egunean kobratzen dituen ia 55.000 eurok, Espainiako *salario minimo interprofesionalak* markatzen dituen 18,05 eurokin konparatu daitezke edo norberak kalkulala dezala zenbat irabazten duen eguneko. Noiz jubilatuko ginatete pertsonaje honek urtean irabazten duena jasotzeko?

Bankuak atrakatzen zituen lapur barkartia ere atxilotu zuten uztailean. «Gure zorrak ere ostu balitu bitarte horretan...» pentsatuko zuen batek baino gehiagok. Baina ez, eta hura atxilotu dute. Egungo legedian delitu baita banketxea lapurtzea. Eta banketxe bat irekitzea?

## ASTEKO IRUDIA ▶



## Pixkanaka-pixkanaka eguneroko ohiko jarduerari ekiteko unea iritsi da

**Erredakzioa** ▶ Gustura asko hartzen ditugu opor egunak, urte osoan zehar lanean aritu ondoren atsedean hartzeko aukera ematen baitute. Opor egun horiek, ordea, uste edo nahi baino arinago bukatzen dira, eta berriro ere oporren aurretik utzita-

koari ekin beharra dago. Aste honetan nabaritu da batik bat, irudian ikus daitekeen bezala, lantegietan-eta ohiko jarduerarekin hasi direla. Herriak ere euren betiko mugimendura edo normaltasunera bueltatzen somatu ditugu. I. GARCIA

## hilberria ▶

Miren Josebe Sein  
Zapirain

Herenegun hil zen, 2007ko irailaren 7an,  
Elizakoak eta  
Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
—Golan bego—

Oiartzungo Haurtzaro Ikastola

OIARTZUNEN, 2007eko irailaren 9a

HILBERRIAK  
URTEURRENAK  
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko  
HITZAn jarri eta Gipuzkoako  
beste 4 Hitzetan DOAN  
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN  
120.000 IRAKURLE

ESKELAK  
19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

GUTUN@K ▶

Tren zuzenak eta apeaderoa

Oso poz handia sentitu nuen ikusi nuenean tren ordutegi berrian, irailan hasi eta neguan jarraituko duena, garai bateko ordutegia berriz ere jarri dutela. Tren zuzen guztiak Tolosako apeaderoan geldituko dira.

Horregatik eskerrak eman nahi dizkiet erabaki hori posible egin duten guztiei: bileterara agertu zirenei, sinatzen eta sinadurak biltzen lagundu gintuztenei, prentsari artikulua eta bilera deiak publikatzeagatik, Udaleko, Renfeko eta Diputazioko ordezkari, Batzar Nagusieta-ko Aralar eta Ezker Batua alderdiei, konpobideari azken bultzadizoa eman diotelako.

Era guztian, zerbait ikasi dugu. Jendeak tren zuzenak estimatzen dituela eta, posible balitz, horrelako gehiago izan beharko lirartekeela, tranbiak zein lurraldekakoak.

MARIA PILAR HERAS ▶ TOLOSA

TOLOSALDEKO HITZA.INFO ▶

Gogorra egin al zaizu lanera bueltatzea?

Bai. Beti egiten da gogorra egun asko oporretan igaro eta gero lanera bueltatzea, baina nire kasuan lehen bi egunetan izaten da. Gero ohitu egiten zara, edo ohitu beharra dago behintzat.

OLATZ ▶ IBARRA

Bai, nori ez zaio gogorra egiten? Arinago egiteko, egokiena urtean zehar opor egunak banatuagoak edukitzea izango litzatekeela uste dut.

GORKA ▶ VILLABONA

Niri ez zait hain gogorra egin. Lana gustatzen bazaizu zergatik izango da ba gogorra?

ARANTXA ▶ TOLOSA

GIZARTEA ▶

I. TERRADILLOS - N. LATABURU

**I** raila. Batzuentzat urteko hilabeterik gogorra. Beste batzuentzat ohiko egunero-kotasuna berreskuratzeko garaia. Eta askorentzat asmo berrien garaia. Ikasturtearen hasierarekin batera, urtean zehar alde batera utzita dauden asmoei ekiteko unerik egokiena dela uste du jende askok. Adituek diotenez, ordea, norbere buruari helburu gehiegi ezartzeak frustrazioa dakar kasurik gehienetan, amaierara iritsi gabe bide erdian uzten baitira sarritan.

Egun hauetan herriko liburu dendetara gerturatzea baino ez dago honen adibide argia topatu ahal izateko. Argitaletxeek astez aste osatu behar izaten diren bildumak kalera-tzen dituzte estreinakoz hilabete honetan. Era guztietakoak dira: haurrak dituzten gurasoei zuzendutakoak —marrakzi bizidunak, jostailuak, ...—, historiari buruzko liburua, objektuak biltzekoak —tamaina txikiko autoak, harriak, tamaina txikiko etxeak, haizemaileak, ...—, kirola egiteko laguntza ematen duten bildumak —gimnastika, Pilates metodoa, aerobic, ...— edota amodiozko liburu bildumak.

Lehenengo alean prezio deigarriak erabiltzen dituzte jendeak eros ditzan; haatik, bigarren aletik aurrera prezioa %150a igotzen da kasu askotan. Tolosako Ross liburu dendako langilea den Benito Sanchezek azaldu duenez, «prezio hori izaten da jendeak lehen



50 bilduma ezberdin baino gehiago topa daitezke liburu dendetan. n.l.

Edozein une da egokia bizitzako bilduma osatzeko

Irailean argitaletxeek kaleratzen dituzten bildumekin ez amaitzeak frustrazioa sortu ohi duela uste dute adituek

aleak erosteko arrazoia, baina bigarrena iritsi eta asko garestitu dela ikustean gehienek atzera egiten dute; dena den, izaten dira astero astero ale berriak gordetzeko eskatzen datenak, eta hauek amaierara arte egiten dute bilduma, baina gutxiengoak izaten dira».

Guztiak sartu ezinik

Liburu denda honetan, bestee-tan bezala, erakuslelhoia bilduma hauekin beterik dute, eta denda barrura sartzean ere txoko guztietan dituzte, lurrean, apaletan nahiz paretean zintzilik. «Ia lekurik ez dugu izaten guztiak sartzeko, eta okerrena izaten da berez saldu nahi duten produktua txikia izan arren, kartoi handietan estaltzen dutela eta horrek leku handia hartzen du; pentsa, guztira 50 bilduma baino gehiago ditugu une honetan, eta horiek guztiak sartzeko ez da batere lan erraza izaten».

Ondo dago ikasturte berrirako helburu berriak ezartzea, baina, beti ere, bizi duzun egoera egokiena baldin bada proposamen berri horri ekiteko. Izan ere, nork dio iraila dela unerik egokiena? Badirudi, mundu honetan, une bakoitzean egin behar ditugun ekintza guztiak zehaztu egin behar dizkigutela. Gizarteak erabaki behar ote du noiz utzi behar diodan erretzeari edota ustez soberan ditudun kiloak jaitsi behar ditudala? Norberak jarri beharko litzioke bere buruari helburuak, nahi duenean eta nahi duelako.

**JANARIDENDA PILAR**  
Larrea, 9 • Villabona  
Tel.: 675 713637

---

**Nahikide KIO**  
Tel.: 943 69 64 84  
Faxa: 943 69 33 59  
Larrea auzoa, 8  
20150 BILLABONA

**Donostialdeko enpresa batek AGENTE KOMERTZIALA BEHAR DU GOIERRIN eta DONOSTIAN - ERREFERENTZIA: 07-AGK**

**Eskaintzen da:**

- Etorrizuneko proiektu batean parte hartzea,
- Merkataritza kontratua,
- Soldata interesgarria,
- Beste lan komertzialekin bateragarria.

**Eskatzen da:**

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea,
- Autoa izatea

**Kontuan hartuko da:**

- Publizitate eta komertzial lanetan eskarmenuta izatea.

Curriculum Vitae zehatza bidali irailaren 20 baino lehen. [gizabaliabideak@jarduna.net](mailto:gizabaliabideak@jarduna.net)  
HELBIDE ELEKTRONIKORA. Gogoan izan erreferentzia zehatza

**MINTZALAGUNA TOLOSAN EUSKAL HIZTUNAK BEHAR DITUGU**

Euskararen alde egin nahi baduzu, eta horretarako astean ordu bete baldin badaukazu, dei ezazu telefono honetara: 605 61 21 25 edo idatzi [mintzalaguna@euskalerria.org](mailto:mintzalaguna@euskalerria.org)

**MINTZALAGUNA taldea**

**Janari Denda Pepi**  
Etxeko Barazki eta Fruituak  
Berria, 56 BILLABONA  
Tel. 943 69 16 38

**OGI-GOXO**  
Okindegi eta Gozotegia  
Kale Nagusia, 26  
Tel.: 943 69 32 94  
Billabona

**hitza**

**Praktikak HITZAn**

**Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioa lizentziatutako Tolosaldeko eta Leitzaldeko ikasleei zuzendua**

Curriculum-a bidali helbide hauetara:  
Araba etorbidea, 5 behe- atzea • 20400 TOLOSA  
[tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info)

JAIKAK ▶

# Hurrengo urtera arte adio

Eskualdeko hainbat herritan festak ospatu dituzte eta gaur azken eguna izango dute, Alkizan izan ezik, hurrengo asteburuan jaiekin jarraituko baitute

### NAJARA GAZTIA

Atzo eskualdeko hainbat herritan eguraldi onaren laguntzarekin herriko jaietz gozatzeko aukera izan zuten. Honela, Alkiza, Bedaio, Eliduin, Tolosako Izaskun Auzoa, Lizartea eta Zuzurkil jai giroan murgituta igaro zuten eguna. Alkizan hurrengo asteburuan jaiekin jarraituko duten arren, gaineratze herriek gaur esango diete agur festei.

Alkizan adin guzientzako herritarrentzako ekitaldiak antolatuta zizuten, eta herritarrek batek ematen duen lasatasunarekin umeentzako txirritindulari lasterketa egin zuten, baita toka txapelketa ere. Bestaldea, jubilatutako bazkarian elkartu ziren, eta bateranoen arteko XVI. Pilota Txapelketaren finalak bazkaldia ondoren jokatu zituzten.

Bedaion ere goizean Eskuzko Pilota Txapelketa Handia jokatu zuten eta arratsaldean umeentzako jolasak egin zituzten pilotalekuan. Festa gaur goizaldera arte zabaldu da, herri afaria egin ondoren Kupela erromeria taldearekin ordu bikiak arte dantzan ibili baitira. 04:30ean hasitako barotouri

zopa batekin amaitu dira aurten festak. Lizartean, festa 10:00etan hasi zen. Lizardi txistulari taldeak egin zuten goiz deiarekin eta egun osoan zehar hainbat ekitaldi izan zituzten. Eseterako azken eguna ospatzeko triki-bertsio poteoa Jokin Sorozabal eta Amaia Agurrekin, bazkari herrikoa, asto karrera, sagardo dastaketa...

Tolosako Izaskun auzoan ere, Alkizan bezalaxe toka txapelketa egin zuten. Bertsio bazkaria egin aurretik Bonberenea Ixarantxak suzoi bonetako toloak alaitu zituzten. Sagardo ak eta ardoak ere lekuzik izan zuten arratsaldean sagardo dastaketa egin baitzuten eta zahagi ardoa.

Zuzurkil buruhandien ondoren lore lasterketa egin zuten Jose Arregi plazan eta bazkaria egin aurretik sardinak eta sagardo dastaketa egin zuten. Moztoro gasa ere izan zuten. Eliduin meza nagusaren ondoren hamaiketako egin zuten eta arratsaldean txiki- txikienek Marsel magoaren gin-zatu egin zuten. 18:30ean herritarren jaialdia egin zuten eta 00:00etan diskojaisarekin amaitu zituzten festak.



Alkiza. 30 umeek egindako orfojaren kontrako proban komposantura jain-etorria egin behar izan zuten. a.u.u.

**urteurrena Alkiz Udal Euskarlegia**

**GURE IKASLE IZAN BAZARA, ETORRI IRAILAREN 23ko BAZKARIRA ! ZUREKIN IBILITAKO JENDEA ERE ANIMATU!**

**943651006**

**G**

**hitza**

**EGITARAUAK ▶**  
**ALKIZA GAUR**  
**10:00.** Meza nagusia.  
**10:15.** Pilota partiduak: Gaizteen Arleko XVI. Txapelketa finalak.  
**16:00.** Kukli mehatzaren jolasak frontoian.  
**17:00.** Asto lasterketa herrikoa moztorotuta.  
**Ondoren.** Gomri bere animalekin.  
**Gauean.** Ansozeregi eta Larrañagarekin erromeria.

**BEAIO GAUR**  
**11:00.** Meza nagusia.  
**12:30.** Sagardo eta pinbo dastaketa. Birtzean txistulari Ilzeder eta Josebiren eskutik.  
**13:15.** Dantzarak Udaberri dantza taldearen eskutik.  
**17:00.** Herri kirol jaiak umeentzako frontoian.  
**20:00.** Lauzuru taldea herriko plazan.

**IZASKUN AUZO (TOLOSA) GAUR**  
**09:30.** Diana Tolosako Udal Txistulari Bandaren eskutik.  
**LIZARTEA GAUR**  
**10:00.** Goiz deia, herriko gallerekin.  
**11:30.** Pilota partiduak.  
**13:00.** Otsolar dantza taldearen emanaldia.  
**17:00.** Ume jolasak, bokotolada eta sokatira gizonak emakumeen aurka.  
**18:00.** Dantza soka.  
**19:00.** Herri kirolak.  
**ZUZURKIL GAUR**  
**09:00.** Diana.  
**11:00.** Zuzurkilgo VII. Kros Herrikoa eta hamaiketako.  
**12:30.** Meza Nagusia.  
**17:30.** Ardi bakurrak Iturralde baserri inguruan.  
**18:30.** Halterofilia XVI. Elbarrena Tolesoa Jose Arregi plazan.  
**20:00.** Gu ta guturrak, bertso berrik eta lagun zaharrak.



Zuzurkil. Arratsaldean egin zuten blusen arteko pentafon koadria bakotzak bertso bana bota zuten. Txalo gehien jaso zuten koadria izan zen irabazlea. Hau pentafon bakotza lehenengo jokoa izan zen eta gero beste bakotz egin zituzten. Argazkia, Iñigo meza bertso bat kantatzen. a.u.u.



Bedaio. Bedaion Ama Birjinaren Eguna ospatu zuten atzo eta arratsaldean umeak izan ziren protagonista eta herriko frontoian jolasen ibili ziren. Gurasaok ere animatu ziren. a.u.u.



Eliduin. Hemen ere umeak izan ziren protagonista eta arratsaldean Marsel magoaren gozabeko aukera izan zuten herriko pitalekuan. Diskoiairekin amaitu ziren festak. a.u.u.



Izaskun. Bonberenea barangak auzoko bokotz alaitu ondoren bertso bazkaria egin zuten Sputnik plazan, Hamaika Beruterekin. a.u.u.



## Atzo ere tentsio umeak bizitu ziren goizean Lizartean

Atzo Lizarteko herritarrek elkarretaraztea egin zuten ermitako meza nagusian Regina Oteola eta Udal korporazio berruan zuzendutako bitartean. Meza euskaraz eman zuten apaitzak eta bakterik ez zioten elkarri eman, apaitzak ez baitzuten apaitu. Herritarrek mundu azaldu ziren bizkarretatik, ismatutik sartu zirelako. 3 bertitarrei jarri zuten salaketa atzo Oteolak ujasotako mehatzengatik. Bestaldea, Espainiako bandera jarri ondoren herritarrek Udallexean ikurrina jartzea lortu zuten puzgarri batzuen bitartez. a.u.u.

**TOLOSALDEKO HITZAINFO**

Zeuk idatzi. Zeure eskualdeko berrien bat argitaratu nahi baduzu sar zaitza gure webguneko Zeuk idatzi atalean. Zuk bidalitako informazioa jaso ondoren kazetaria zurekin harremanetan jarri ahal izateko datuaren bat utzea komeni da, telefoniko zerbaita edo helbide elektronikoa.

**GOIATZ MARGOAK OROKORREAN**

- INDUSTRIALA - FATXADAK - FATXADAK EBAHERRITZEKO - HARRIA GARBITZEKO...

Enpresa bakoitzeko 6€-20€-ren BILATZARIONA

Tel.: 943 69 31 01 • Faxa: 943 69 31 01 • 609 14 37 13

**OSKI GAZTEA**

Emetirio Arrese, 5 943 65 86 21

Irailaren 10etik aurrera DENBORALDI BERRIA M<sup>o</sup> Victoria Ortiz

**EIZMENDI**

ARMATEGIA • BIROLDENDA

- Kirol gaiak konpontzeko lantegia
- Aukera handia eskopela eta korrikotolan

Berio, 19 • Bilbobono • Tel.: 943 69 26 23 • Faxa: 943 69 30 44

**iragarki laburrak ▶**

**GALDUTAKOAK**  
Txakurra, Españer Breton Herrikoa eta hamaiketako.  
**12:30.** Meza Nagusia.  
**17:30.** Ardi bakurrak Iturralde baserri inguruan.  
**18:30.** Halterofilia XVI. Elbarrena Tolesoa Jose Arregi plazan.  
**20:00.** Gu ta guturrak, bertso berrik eta lagun zaharrak.

**SALGAN**  
Autoa, Fiat Punto.  
680 93 30 17 • 660 96 21 00

**ARANDIA JATETXEA**

Tel.: 943 65 22 62

**ALTZO**

**BASOKO ALTZARIAK**

garces altzariak 1.930ean sortua

**Dekorazioa**  
• Barne apalndura  
• Proiektuak  
• Gremioen koordinazioa

Larrea auzoa, Villabona  
Tel.: 943 692 965

www.muebles-basoko.com



VILLABONA ▶ GASTRONOMIA

# Jende eta produktu ugari Elikagaien Azoka Berezian

XIII. Isats Gisatu Lehiaketa Irrintzi elkarteak irabazi zuen puntu batengatik

ASIER IMAZ

Eguraldia lagun, atzokoan jende ugari bildu zen Villabonako Elikagaien XII. Azoka Berezian. Irrintzi elkarteak antolatzen duen ekitaldian, kalitate handiko eta artisauro eran egindako hainbat produktu erosteko aukera oparota aurkitu zuten herriko plazara gerturatu zirenek. Bertan, moeta ezberdinetako lehengaiak aurkitzen ziren erosgai; barazkiak, fruituak, gaztak, ogiak, eztiak eta pateak, besteak beste. Jatorriari dagokionez, Euskal Herriko zein Errioxako (Espainia) txoko ugariatik etorritako produktu eta saltzaileek topo egin zuten Villabonako plazan.

## XIII. Isats Gisatu Lehiaketa

Azokaz gain, XIII. Isats Gisatu Lehiaketa antolatuta zuten Irrintzi elkarteak, bailarako hamar elkarteak parte hartu zuten. Iragan urtean, Amasako Uxo-Toki elkarteak eraman zuen saria, Juan Luis Ezeiza sukaldari zela. Ohiturari jarraituz, aurtengoan ere 5 kilo inguru banatu zizkieten elkarte bakoitzari. Ondoren, hamar eltzeren barnean goiz guztian sutan egon zena dastatu zuten Irrintzi elkarteak, parte hartzaile, elkarteko kide eta azokako saltzaileek.

Behatzak ongi mihazkatu ondoren, epaileek XIII. Isats Gisatu Lehiaketaren irabazlea Villabonako Irrintzi elkarteak izan zela jakinarazi zuten. Jose Luis Goya sukaldariak eginiko lanari esker, Puntu batera, 54 punturekin hain zuzen ere, iragan urteko txapelidunak geratu ziren, Amasako Uxo-Toki elkarteak, Juan Luis Ezeiza sukaldari zutela. 43 punturekin, hi-

rugarren postuan Villabonako Behar-Zana elkarteko kideak geratu ziren. Andoni Egiño buru zutela. Hala eta guztiz ere, epaileek jakinarazi zuten, lehen biek hasera batean puntu kopuru bera jaso omen zuten. Irrintzi eta Uxo-Tokiren arteko berdinketa hausteko berriz bozkatu behar izan zuten, bietakoren bati puntu bat gehitzeko. Bigarren bozketak erabaki zuten, beraz, XIII. Isats Gisatu Lehiaketa atzo.

## SAILKAPENA ▶

### XIII. ISATS GISATU LEHIAKETA

1. Irrintzi elkarteak:	55 puntu
2. Uxo-Toki elkarteak:	54 puntu
3. Behar-Zana elkarteak:	43 puntu



Aukera handia izan zen atzoko ezaugarrietako bat. A. IMAZ



Bailarako hamar elkartetako sukaldariak gogor saiatu ziren Isats Gisatuaren Lehiaketan. A. IMAZ

TOLOSA ▶

## Produktu berriak eta giro ederra azokan

Ernioko lasterketaren amaieran jende ugari gerturatu zen Zerkausira

PABLO ALBERDI

Oso giro polita bizi izan zen atzo Tolosako azokan. Ernioko mendi lasterketa zela eta, jende ugari gerturatu zen Triangulo plazara, eta honekin, Zerkausiko plaza ere bisitatu zuten.

Bertan ikusi genituen berrikuntza asko. Perretxiko zerranda adibidez, zeharo aldatu zen atzo. Onddo eta ziza horiez gain, kuletroak, mendiko angulak, gibelurdinak eta *Pie azul* perretxikoa ere ikusi genuen. Badirudi mendian ateratzen hasi direla eta izan dugun udara dela eta, aurtur eskaintza zabala izango dugula dirudi.

Barazki zerranda ere zabala izan zen atzo; tomateak, lekak edo Ibarrako piparrak ohikoen artean, eta babarrunak edo berenjenak nobedadeen artean. Fruta arloa berriz, pikuekin eta matxakarekin hazi zen atzo.

## ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura Plaza</b>		
Gerbera	12,00	-
Hortentsia	12,00	-
Lobelia	4,50	-
Xarbota	4,00	6,00
Salbia	1,00	1,20

### Bertako produktuak

Ziza horia	15,00	-
Onddoak	22,00	30,00
Mendiko angula	15,00	-
Gibelurdina	15,00	20,00
Pieazula	20,00	-
Kuletroa	35,00	-
Matxakana	6,00	-
Lekak	3,50	4,50
Porruak	1,00	5,00
Txikoria	1,00	1,25
Tolosako babarruna	8,00	12,00
Babarrun zuria	6,00	8,00
Tomatea	2,00	4,00
Ardi gazta	14,00	18,00

### Produktu ekologikoak

Kalabaza	1,60	3,04
Aza	2,50	3,00
Kogoiola	1,00	-
Ahuntz gazta	3,00	-
Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Txitxirioak	2,40	-

**BRONTXILLO** Harategia • Arraindegia

943 69 68 23  
Santio, 4  
Villabona

Nierebai.Nierejoangonaiz.Niereh  
re.Kontuzaharrakberrikoditugu.  
e.Nierejoatensaiatukonaiz.Nip  
atekoasmad  
gunat  
tuk

**Ni ere joango naiz**

**NUTRIZIO AHOLKULARITZAKO ZENTRU BERRIA**

**DIETA PERTSONALIZATUAK**  
OBESITATEA  
NUTRIZIO BERREZIKETA  
HELDUAK ETA HAURRAK

10 urte baino gehiagoko eskarmentua

KONDEKO ALDAPA.  
5 B - 2ª ESKUBIA  
20400 TOLOSA  
ALDEZ AURREKO HITZORDUA  
679 934 888

AMAIA ETXETXIPIA  
BIOLOGA

MUSIKA ▶

**Reincidentes gaur, 20:00etan, Bonberenean**

Reincidentes taldea ariko da gaur, Bonberenean 20:00etatik aurrera. Reincidentes taldea Sevillatik dator bere azken lana *El comercio del dolor* izenekoa aurkeztera.

GIZARTEA ▶

**Euskara ikastaroak, Ereite antolatuta**

Ereite Elkarte Multikulturalak, Murgilduz proiektuaren barruan, etorkinentzat eta hauen seme-alabentzat ikasturte berrirako antolaturiko euskara ikastaroak hilaren 15an hasiko dira. Tolosako Kultur Etxean emango dituzte eskolak, larunbatetan 10:00etatik 12:00etara, eta eskolek irauten duten denboran haurtzaindegi zerbitzua izango da. 7 urtez azpiko umeentzat. Edozein informazioarako, 678 638394 telefonora dei daiteke edota murgilduz@yahoo.es helbidera idatzi.

KULTURA ▶

**Amarozko kantu taldeak ikasturte berria hasiko du**

Datorren asteazkenean, hilaren 12an, hasiko da berriro martxan kantu taldea. Aurtengo urtarrilean hasi ziren elkartzten Amartzen, asteazkeneo, Joakin Artetxe maisu zutela hogeit bat gizon eta emakume euskal abesti ezagunak kantatzen ikasteko. Amaro zko festetan erakustaldi bat ere egin zuten. Orain berriro hasiko dira, eta hain zuzen ere, hilaren 12an, 20:00etan dute lehen saioa Amaro zko Auzoetxen. Kantua gustuko duten guztiek dute aukera parte hartzeko.

KIROLAK ▶

**Aurreko edizioko marka hobetu du Fernando Etxegaraik**

1:24:44ko denbora egin zuen beratarrak; Nerea Amilibia izan zen lehena emakumezkoetan, 1:48:09 denborarekin

IÑIGO TERRADILLOS

Aralarko Adiskideek antolatuta 1:26:52 Ernio mendi lasterketa egin zuten atzo goizean Triangulotik abiatuta. Bi urtez behin egiten da lasterketa hau, eta hurrengo urtean, duela bi gertatu zen bezala, izena aldatu beharko diote, izan ere, marka berria ezarri zuen Fernando Etxegaraik beratarrak. Hain zuzen ere, azken edizioan Etxegaraik berak ezarritako denbora baino 2 minutu eta 8 segundo gutxiago behar izan zituen atzokoan, 1:24:44, hain justu.

Denera, 130 izan ziren Triangulo plazatik Ernio aldera abiatu ziren lasterkariak. Ordubete eta minutu batzuk igaro zirenerako hasi ziren lehenengo parte-hartzaileak Triangu-



10:00etan abiatu ziren lasterkariak Ernio gailurrera. N. GARZIA

SAILKAPENA ▶

GIZONEZKOAK

1. Fernando Etxegaraik
2. Joxe Felipe Larrazabal
3. Jokin Lizeaga
4. Juan Mari Garin
5. Arkaitz Zamakona

EMAKUMEZKOAK

1. Nerea Amilibia
2. Alizia Olazabal
3. Izaskun Zubizarreta
4. Ainhoa Jauregi
5. Loli Benitez

lora ailegaten. Hala, Etxegaraik garailearen ostean, Joxe Felipe Larrazabal igaro zen helmugatik, Jokin Lizeaga izan zen hirugarrena, Juan Mari Garin zizurkildarra laugarrena eta Arkaitz Zarrakuna, bosgarrena. Emakumezkoetan, berriz, Nerea Amilibia izan zen lasterketa amaitzen lehena, eta gainera, orain bi urte berak ezarri zuen marka hobetzea lortu zuen: 1:53:59 izan zen azken edizioan bere denbora, eta atzokoan 1:48:09. Ia sei minutu gutxiago behar izan ditu, beraz, aurtan, Zizurkilen bizi den aiarrak. Bere atzetik, Olazabal, Zubizarreta, Jauregi eta Benitez iritsi ziren helmugara.

KULTURA ▶



**Jesus Elosegiren omenez**

**Erredakzioa ▶** Jesus Elosegiren argazki osaturiko liburua aurkeztu zuten atzo udaletxe areto nagusian. Jose Agirre Lazkao beneditarra, Jose Miguel Larrañaga Aranzadiko lehendakaria, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea eta Karlos Olaetxea Jesus Elosegiren ilobaren semeak aurkeztu zuten. 100 lagun inguru elkartu ziren ekitaldian. NAIARA, GARZIA

**hitza argazki lehiaketa**

**bidali opor hauetako argazkia**

**ARGAZKIAK NORA BIDALI**

- ▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
- ▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZaren egoitzetara ekarri

**ONARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info**

**Sari nagusia**

Mendexa-Lekeitiko **VILLA ITSASO** hotelean **bi pertsonentzako asteburua.**

**2. saria**

Talaso terapia **Zelai** Zumaiako **TALASOZELAI** tarasoterapia zentroan **bi pertsonentzako zirkuitua.**

**3. saria**

Tolosako **DENAK** tabernan **lau pertsonentzako afaria.**

**ZOKETA APARTAK**

**PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILA** guztien artean HITZaren mobilta eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Ibarra.** Hilaren 23ko Ibarako Azoka berezian Xepia elkartek 3. Piparraren Lehiaketa Gastronomikoa antolatuko du. Izen-ematea, xepilajke@hotmail.com-en edota 660 392331 (Fermin Arregi) edo 679 238784 (Jaione Bengoetxea) zerbakietan.  
**Leitza.** Jeiki abesbatzak kantu klaseak antolatu ditu herritar guztiei irekiak urritik aurrera Iruñeko Eugenia Etxarren irakaslearekin. Izen-ematea, 635 714235 zerbakietan 16:00etatik 18:00etara.  
**Leitza.** Arkupeak jubilatutako elkartek irteera antolatu du Benidormera, hilaren 22tik urriaren 6ra. Izen-ematea, elkartean.

**ERAKUSKETAK**

**Tolosa.** Gotzon Etxeberriaren *Olibondoak badu bihotzik* eta Josep M. Codinaren *Orografia personal* pintura eta eskultura erakusketak Aranburu Jauregian.  
**Tolosa.** Jesus Elosegiren omenezko argazki erakusketa Aranburun.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Tolosa.** Azpiroz, L. Amaro zuzena 9. 943 675118.  
**Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

**Bihar**  
**Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.  
**Goizueta.** Apeztebea, L. M. Kale Nagusia, 64. 112.  
**Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**AGURRAK ▶**



**ZORIONAK ENAUTA ETA OIER!**  
Ondo eta pasa zuen urtebetetze egunean. Muxu handi bat! Aitabxo eta amabxo.

# Huescatik Tunisiara

**HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Agustin Ezeizak Huescako paisaia eder bat bidali digu, eta Elena Uranga tolosarrak, berriz, Tunisiako mutiko baten irudia**



**AINSA (HUESCA, ESPAINIA) ▶**

**Agustin Ezeiza (Ibarra).**

Paisaia zoragarri hau bidali digu Agustinek, eta hala azaltzen digu bertan ikusten dena: «Kaixo lagunok hemen bidaltzen dizuet Ainsa herria ikusten den argazki eder hau, atzean Peña Montañesa mendia ikusten delarik».

**TUNISIA ▶**

**Elena Uranga (Tolosa)**

Mutiko honen argazkiarekin hartu du parte Elena Urangak HITZA Argazki Lehiaketan. Hauxe kontatu digu: «Tunisiatik ibili gara aurten oporretan. Han aurkitu genuen mutil polit hau. Pitxiak saltzen zituen: jazminez egindako lepokoak, abanikoak eta abar».



**URTE ASKOAN**  
**Maria Mujika (Amezketan).** 1916ko abuztuaren 10ean jaioa. 91 urte. Etxekoan partetik hain guapa izaten jarraitu. Batez ere, Irene eta Ainhoaren partetik

**Buztina Taberna**

- Eguneko Menua
- Plater Konbinatuak
- Otartekoak

**Irailaren 10ean 19:00etan inaugurazioa**  
**San Juan, 6 • ANOETA • 943 65 14 92**